

JAIOTZAREN MENDEURRENEAN

1. Mendeurrena (1904-2004)

- *Fraide isil baten mendeurrena.*

Aita Emiliano Barandiaranen jaiotzaren mendeurrena; fraide isil baten mendeurrena. Isilean langile, eta langilea, azken batean, lehenago edo geroago ekintzaile bezala agertzen da. Lerro hauen egileak aitortu beharra du, Markinan Emilianoren ikasle urte osoan izanik, ia ez zuela jakin hark euskal idazle gisa egiten zituen ahaleginen berri, ez eta musika arloan herrian zituen zereginen berri ere; oso ondo oharitzen zela, ordea, komentatu barruan liturgiako musika arloan egiten zuen lanaz.

Isilean, bere burua erakutsi gabe, apal Karmengo komentuko bizitzan, karmeldar ikasleekin, bera zen haien maisu edo hezitzaile (32 urtean zehar, 1934-1966); ez zen harengan nabari ardura edo kezka berezirik, edota egin behar zituen lanen proiektu handirik; apalki eta isilean daramatza bere lanak...

- *Ekaitz artean argia eta bizia sortzen: idazle.*

Interesgarria da azpimarratzea, zein une historikotan hasi zen idazten Emiliano eta noiz hasi zen bere liburuak argitaratzen. Emilianoren gaztaroan, mendearen lehen hiru amarkadetan, euskarak susperraldia izan zuen: aldizkari berriak sortu zi-

ren; hainbat elizgizonek, oztopoen artean, euskarari bizi berria eman zioten eliza barruan, Euskal erakundeak ere alde agertzen ziren; horren ondorioz euskal literatura aberastuz zihoan eleberri eta narratiba arloan, olerki eta bertso arloan, antzerki arloan... Hurrengo urteetan (1931-1936) euskarak bultzada handia hartu zuen mugimendu berriekin, ikastolekin...

Baina gerra zital eta gaiztoak hautsi zituen euskararen aldeko mugimendu eta ekintza gehienak; hondamendi handia euskararentzat eta euskal idazleentzat: hau ikusten dugu 1937-1945 urteetan.

ORDUANTXE hasten da, batez ere, Emilianoren lan isila: haren liburuen parte handi bat, behintzat eskuizkribuetan ikus daitekeena, 1935-1940an egina da. Ekaitz gaiztoen artean euskal idazle dela esan dezakegu egiaz.

Hurrengo urteetan eta batez ere 50eko hamarkadan, euskararen aldeko hasiera motelak, eta gero eta indartsuagoak agertzen direnean, hor ageri zaigu Aita Emiliano, ez bakarrik, *Karmengo Amaren egutegian* (1951-) artikulua idazten, baita euskarazko liburuak argitaratzen ere; kontuan hartzekoa da, hamarkada honetan beste liburu batzuk ere prest zituela argitaratzeko, nahiz eta gero horretarako suerterik izan ez. Horrela, euskararen berpizkunde berriaren hasieran, bera ere idazle agertzen zaigu.

- *Txistua goi mailara.*

Gerra osteko euskararen aurkako ekaitz aldian, hau da, 40. hamarkadan, Aita Emilianok gogor ekin zion musikari, lehenengo eta behin eliz musikari, baina baita orokorki euskal musikari ere, bereziki txistuari begira. Ansola anaia txistularientzat musika-lan batzuk sortu zituen eta, txistua goi mailara jasotzeko ahaleginetan, musikaren klasiko batzuen partiturak txisturako egokitu zituen: Bach-en *Tocata eta Fuga en re menor*, eta Beehtoven-en seigarren sinfonia.

- *Aitzindari.*

Aita Emiliano, beste Karmeldar baten urratsei jarraituz, aitzindari bihurtu zen. Gabriel Jauregi, 1945ean 50 urte zituela hil zena *fisika* (1935) eta *kimia*-ri (1936) buruz euskaraz liburuak argitaratzen aitzindari izan zenez, Aita Emiliano ere aitzindari dugu, euskaraz Mariologia lantzen eta argitaratzen (nahiz eta erdia argitaratu gabe geratu); txistua goi mailara jasotzen; kantu eta solfeorako metodoa euskaraz jartzen (1960an argitaratzeko prest zuena), etab.

Ustekabean hil zitzaigun Emiliano, 63 urte zituela eta oraindik gauza asko egiteko gogoia zuela...

2. Erabilitako gaiak

Karmel aldizkariaren zenbaki berezi honetan erabilitako gaiak Aita Emilianori loturik daude. Alde batetik haren jaioterria, Eskoriatza: herria historian zehar, kultura, erlijioa, gizartea eta euskara.

Eta gero zuzenean Aita Emilianori buruz: haren bizitza eta jarduera karmeldar bezala, euskal idazle eta musikari bezala. Hauek dira Aita Emilianoren nortasunaren alderdirik azpimarragarrienak gure gizarterako.

Batez ere aipatzekoa da, amaieran argitaratuko dugula Aita Emilianok 1960an inprimatzeko prest zuen *Eresi-ikasbidea* liburua.

3. Esker ona

Karmel zenbaki berezi edo liburu-omenaldi honetan hainbat lagunek parte hartu dute. Guztiei esker ona agertu beharrean gara.

Lehenengo eta behin eskerrak, beren idazlanekin Aita Emilianori omenalditxo hau burutzen lagundu dutenei: Luis Baraiazarra, Aitor Antxia, Angel Barandiaran, Mari Karmen

Arrieta, Juan Karlos Bengoa, Xabier Kaltzakorta eta Patxi Uribarren.

Nire esker ona Eskoriatzako Udalari ere, bere parte hartzeagatik, batez ere Aita Emilianoren omenaldian zuzenean esku hartzeagatik.

Julen Urkiza